

BETERRI-AIZTONDOKO ALDIZKARIA

# AIURRI

1997ko maiatzaren 16a. 58. Zenbakia. Doan banatzen da.

## Lehenengo Jaunartzea



Argazkia: Moisés, 1966

## KALEBERRI

*medikuntza zentrua*

**Gida-agiri  
eta arma baimenatarako  
ikerketak!**

**ORDUTEGIA:**

Astelehenetik ostiralera: 18:00tik 20:00etara.

Larunbatetan: 12:00etatik 14:00etara.




Kale Berria, 8 bajua  
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)  
Telf.-Faxa:943-592957

# TXERTOTA

## SAGARDOTEGIA NEKAZALTURISMOA

- Txotx garaia bukatzean, jatetxe gisa egiten dugu lan; karta eta aukera zabala gure jakietan.
- Egunero irekita igande gaua barne (astelehena izan ezik)
- San Esteban auzoan, leku paregabea.
- Aparkalekua




Txertueta Baserria – ANDOAIN Telf.: 59 07 21

# GOAZEN JOLASTERA!

*Udaleku irekia Andoainen bertan*

# 97



**NORENTZAT?:** 12 urte bitarteko neskato-mutikoentzat.

**NOIZ?:** uztail eta abuztuan.

**ZER EGINGO DA?:** Andoain hobeto ezagutu eta nahiko jolas egin... guztia euskaraz, noski.

**MATRIKULA:** hileko 4.000 pezeta.



ANDOAINGO UDALA  
Euskararen normalkuntzarako  
Lansaila



Laguntzaile  
Gipuzkoako Foru Aldundia

MATRIKULA EGITEKO ETA  
INFORMAZIOA JASOTZEKO LEKUA ETA  
EGUNAK: ANDOAINGO UDALETXEA,  
MAIATZAREN 20 TIK EKAINAREN  
10ERA, GOIZEKO 10:30ETATIK EGUERDI-  
KO 12ETARA.

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
Joxin Azkue  
"Izenak ez du egiten izana".
2. **GALDEZKA.**  
Eta zuri, zer iruditzen zaizu Aiurri ordaindu behar izatea?
3. **ADUNA.**  
Eskola txikien eguna.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**  
Sendian, helduei laguntzeko programa berria.  
1700 milioi pezetako aurrekontua.  
Urdanpilleta kalean.
7. **ASTEASU.**  
Baserriak apaintzeko dirulaguntzak.
- 8-9. **BILLABONA.**  
Bularreko minbiziari buruzko kanpaina.  
Etxegarateko errepidearen auzia.
10. **ZIZURKIL.**  
Arbonara txangoa.
11. **ENPRESA.**  
Pottok poni enpresa.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**  
Lehen jaunartzea.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**  
Herriko musika talde eta musikari ospetsuekin solasean.
- 16-17. **KULTURA.**  
Ernioko gurutzearen 50. urtemuga.
18. **ERRETRATU ZAHARRA**
19. **ZER BERRI?/LEHIAKETA**
20. **AGENDA**

## IZENAK EZ DU EGITEN IZANA



**JOXIN AZKUE**

Lana arrazoi nuelarik, Europako goi alde horietan ibili berria naiz, Herbeheretako Erresuman zehazki (oker bada ere, Holanda deitzen diogun horretan). Bertan eman ditudan egun gutxi horietan, eta hango paisaiako ohizkoak egin zaizkigun haize-errotak eta tulipan-plan-tazioaz gain, fenomeno bitxi baten lekuko izatea tokatu zait: Queen's day edo Erreginaren Eguna deitzen dioten horrena. Izan ere, apirilaren 30ean, Beatriz Erreginatzat izendatu zuten egun hori ospatzen dute Holandako txoko guztietan.

Egun beretsuetan -bizitzaren kasualitateak!- jakin nuen, nola ez bada, Espainiako erregeen alabetako batek Urdangarin esku-baloiko jokalariekin ezkontzeko konpromezua publikoa egin zela, eta honek segidan ekarri duen parafernalia bananero lotsagarria eta koroaren aldeko propaganda merkea: telebista espainolen kolore arrosa-erpalagosoaren benetan eskandalagarria iruditu zait. Honek guztiak bi burutapen, bi erreflexio ekarri dizkit burura, hausnartarazi dizkit.

Lehena, zein modu desberdinetan bizitzen ditugun Holandan eta Euskal Herrian tokatu zaizkigun erregeen ingurukoa. Holandan, poza eta alaitasunak nabariak ziren nonahi beraien erreginaren egunean. Amsterdam, Alkmaar, Utrecht eta abarretan, laranja koloreak kaleetako txoko guztiak janak zituen: hango globo, hango girlanda, hango festa giroa... beraien erreginaren eguna zelako. Ni bezalako begirale kanpotar bati oso garbi egiten zitzaion erregina-erakunde bihotzean zeramatzatela holandarrek, herrian txertatua zegoela. Izan ere, nonahi ikus zitezkeen berarekiko aipamen gozoak. Erreginaren Eguna herriaren eguna zen benetan.


Gure arteko erregetzarekiko jarrera etorri zitzaidan gogora. Ezin uka gurea guztiz bestelakoa dela: Erregearen Eguna noiz den galdetuko bagenu gure kaleetan, Zizurkilen kasu, zenbatek jakingo genuke erantzuna? Nork daki noiz den egun hori? Edota gordinago esateko: Euskal Herrian nori zaio axola zein den Espainiako Erregearen Eguna? Inor gutxiri! Zergatia? Argi asko dago: ez gara monarkiazaleak, inondik inora.

Nire bigarren hausnarketa erregetzaren oinordetzari, segidari, dagokiona da. Agindu digutenez (niri behintzat), Juan Carlosen seme den Felipe izango omen dugu hurrengo errege. Baina bera ez da egungo erregeen lehen seme-alaba, nahiz aurreneko mutila izan. Hau da, beste era batera esateko, alabek, emakumezkoek, zer ikusirik ez dutela, dirudienek behintzat, erregetzaren gai honekin.

Eta nork altxa du bere ahotsa erabaki honen aurka? Non dira matxismoaren kontra besteetan sutsuki agertzen diren patriarkak eta matriarkak? Zer diote sexuen berdintasuna eta kohezkuntza aldarrikatzen duten erakunde, egunkari eta komunikabide potolo horiek? Holandan ez bezala, maila horretako emakumezkoak, definizioz, zera inutil batetan bihurtu dute Espainian, erregetzarako gai ezin izan daitekeen zerbaitetan, arte-erakusketak inauguratzeko eta urtean bitan eritetxeetako haur gaixoak bisitatzeko besterik balio ez lukeen maniki batetan. Eta Gasteizko Sorkunde bera ere, isilik! Izan ere, lehen geniona: euskaldun gehienok errepublikazaleak garenez, zer axola guri?

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32  
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.  
**Zuzendaria:** Ainhoa Oiarzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiarzabal eta Ainhoa Aiarza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramón Bernaras **Publizitate arduraduna:** Fernanda Iruza **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** IPAR, S.L. Donostia. Lege-gordailua: SS-202/94  
ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



# ETA ZURI, ZER IRUDITZEN ZAIZU «AIURRI» ORDAINDU BEHAR IZATEA?

Uztailetik aurrera Aiurri kobratzen hasiko gara. 1.000 pezeta ordaindu beharko dira aurren, eta 2.000 berriz, hurrengo urtetan. Diru kopuru hori urte osoan aldizkariak jaso ahal izateko ordaindu beharko da, urte osoan argitaratzen ditugun 22 Aiurri jasotzeko, alegia. Gure aldizkariaren diru iturriak gehitzeko hartu da erabaki hau, aldizkariaren gastuak handiak baitira eta zorrak ere gehitu doaz. Beraz, eta Aiurrik zure aportazio hori merezi delakoan baldin bazaude, aldizkariaren atzekaldean agertzen den harpidetza txartela bete eta orrian bertan agertzen diren leku horietako batean utzi. Izan ere, Aiurrik zure laguntza behar du uztailetik aurrera argia ikusteko.



**MERTXE BERISTAIN,  
LANGILEA. BILLABONA.**

Gaur egun gauza guztiak kobratzen dira eta ez zait gaizki iruditzen Aiurri kobratzen hastea. Niri asko gustatzen zait aldizkaria, herrietako albisteak batez ere. Beraz, ziurrenik, ordainduko dut ordaindu beharrekoa.



**NEREA JAUREGI,  
IKASLEA. ZIZURKIL.**

Ez zait gaizki iruditzen, gainera, ez da diru asko eskatzen. Hilabetekaria oraingoa baino osatuagoa iruditu arren, Aiurri jasotzen jarraituko dugu, eta beraz, ordainduko dugu.



**AXUN ARIZMENDI  
ETXEKOANDREA. ADUNA.**

Gauza normala da aldizkaria kobratzen hastea. Orain, nahi duenak bakarrik jasoko du aldizkaria, eta nahi ez duenak berriz, ez. Ez da diru asko eskatzen, eta diru horren truke gertuko gauzak eta jende ezaguna agertzen den aldizkaria jasoko dugu.



**DORA ASTIAZARAN,  
ETXEKOANDREA. ASTEASU.**

Ondo iruditzen zait. Gaur egun dena kobratu egiten da, eta Aiurri ere ez da gutxiago izango!



**ELENA RUBIÑOS PRIETO  
IKASLEA. ANDOAIN.**

Nire ustez, horrelako iharduera kultural interesgarriek beste diru iturri batzuk izan beharko lituzkete, baina badirudienez, ez da behar adina diru-laguntzarik jasotzen. Bidezkoa iruditzen zait zuen inizatiba. Zorte on!



**PATXI CANDELARIO,  
IKASLEA. ANDOAIN.**

Oso ondo iruditzen zait. Bide batez, aldizkarian lan egiten duzuenon lana errekonozitzeko aukera paregabea da. Diru kopurua ez da handia, guztiok ordaintzeko modukoa da.



**XIXORI**  
**BELARDENDA**  
DIETETIKA ZENTRUA  
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

**MIRARI**  
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2  
☎ 590162

ANDOAIN

# ESKOLA TXIKIEN EGUNA

**Ekainaren 8an  
Eskola Txikien eguna  
ospatuko dute Adunan**



*Guztira 24 eskola txiki daude Gipuzkoako auzo eta herri txikietan. Bi urtetik hamabi urte bitarteko haurrek ikasten dute eskola txiki horietan, eta herriari eta euskarari oso loturik dauden eskolak dira, izenak dioen bezala, txikiak direlako. Aurtengoan, hamargarren aldiz, Eskola Txikien eguna ospatuko dute, eta Adunan izango da ospakizun hori. Beraz, buru belarri ari dira lanean eskola irakasle, guraso, eta nola ez, haurrak.*

**D**uela hamar urte inguru Federakuntza bat sortu zuten eskola txikietako gurasoek eskola txikiei laguntza emateko. Federakuntzaren, eta oro har, eskola txikien inguruko mugimenduaren helburua herri edota auzo txikietako haurrei beren ingurunean bertan kalitatezko irakaskuntza eskaintzea da. Era berean, herri txikietan eskola edukitzeak duen garrantzia azpimarratu nahi dute. Izan ere, herriak bertara bizitzera etorriko direnei eskaintzen dien zerbitzu bat da eskola, eta gainera, haurrak bere herriarekiko lotura handiagoa izango du herrian bertan ikasiz gero.

## EUSKARAOKEA HERRIAN

Hori guztia aldarrikatzeko egunpasa egingo dute ekainaren 8an Adunan. Bertan, Gipuzkoako eskola txiki guztietako ikasle eta gurasoak elkartuko dira, eta ikastetxe bakoitzeko haurrek ikuskizun bat eskainiko diete bertan bildutakoek. Eguerdian bazkaria egingo dute, eta dantzariak, trikitilariak eta antzeakoak ez dira faltako. Arratsalde partean Super bateko jokoak eta Euskaraokea izango dira herrian haurren eta gurasoen gozamenerako. Beraz, eta "Eskola txikiak bizirik" lemapean zita garrantzitsu bat dugu datorren hilaren hasieran.



## OKERRAK ZUZENTZEN

Aiurriren azkeneko zenbakian argitaratu genuen «Borroka pro nobis Catalina» artikuluan *lauzpabost femi-nista txorok* esana letra etzanarekin argitaratu ordez, egileak eskuratu zigun bezala alegia, letra normalarekin argitaratu genuen, egileak zuen asmoa aldatuz.

Barka hutsegitea!

# PERTSONA HELDUAK ETXEAN DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK

**Andoaingo Udala Gipuzkoako  
Diputazioaren erantzunaren  
zain dago programa martxan  
jartzeko**

*Orain arte bakarrik bizi ziren hirugarren adineko pertsonen laguntzak eskaintzen zitzaizkion. Hemendik aurrera pertsona heldua bere etxean duten familiei laguntzeko "Sendian" programa jarriko dute martxan Andoainen. Gizarte Ongizateko teknikari arduraduna den Ana Sanzekin izan gara laguntza programa horren berri izateko.*

**-Zein helbururekin planteatu duzue laguntza programa hori?**

Gure herriko hirugarren adineko pertsonentzako zerbitzu eta eskaintza ugari dagoen arren, pertsona nagusiari bakarrik ematen zitzaizkion laguntzak baino ez ziren. *Sendian* laguntza programa honen bidez, adineko pertsonak bere kargura dituzten familiei lagundu nahi diegu. "Bere senide heldua zaintzen duten pertsona horiek egiten duten lana eta funtzio soziala izugarria da".

**-Zein laguntza mota eskainiko duzue?**

Era askotako laguntzak eskainiko ditugu. Horien artean, heziketa familiarra, laguntza psikologikoa, laguntza bolondresa, zaharren egoitza eta eguneko egoitzetan asteburuetan egon ahal izatea, besteak beste.

**-Azal diezazkiguzu banan-banan laguntza horiek.**

*Heziketa familiarra* adineko pertsona zaindu behar duena hezitzeko da. Hau da, pertsona helduaren osasuna, elikadura edota zainketa nolakoa izan behar duen jakiteko, pertsona kualifikatuek (abokatuek, medikuek, gizarte laguntzaileek, psikologoek...) hitzaldi edota *laguntza psikologikoa* eskainiko diote.

Pertsona heldua zaintzen duenak momentu jakin batean zerbait egin behar duelako heldua zaindu ezin duenean bolondres baten laguntza izango du. *Bolondresa* arduratuko da pertsona helduaz momentu jakin horretan. Laguntza hori eskaini ahal izateko Gurutze Gorria eta Osasunaren pastoralarekin gaude harremanetan.

*Zaharren egoitza eta eguneko egoitzetan asteburuetan egoteko aukera*, pertsona heldua asteburu batean zentru horietako batean egoteko aukera da. Zaharren egoitzan, hilean asteburu batean egongo da gehienez; eguneko egoitzan berriz, gehienez, bi asteburuetan.

Azkenik *laguntza teknikoak* eskainiko ditugu, eta adineko pertsonari etxeko bizimodua errazteko lanak dira: Paretetan heldu ahal izateko barrak, bainugeletako egokitze lanak ...

## EUSKO IKASKUNTZA ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

**Ikerkuntza lanei  
bultzada ematea da helburua**

**A**ndoaingo Udaleko Kulturako zinegotzia den Garbiñe Egibarrek eta Eusko Ikaskuntzaren ordezkaria den Lola Valverdek hitzartutako agiriaren ondorioz, herriari buruzko ikerketa lanak burutuko dira bi erakunderen artean.

Bekak, hitzaldiak eta udal argazki artxiboaren informatizazioa egingo dute Andoainen Udalak sinatu berri duen akordioaren ondorioz. Hori dela eta, Eusko Ikaskuntzak Andoaingo Udalak antolatutako dituen bekak aztertu eta epaituko ditu epaimahairen partaide izango baita. Horrez gain, dorretxei buruzko hitzaldiak prestatuko dituzte. Bukatzeko, Udal argazki artxiboa informatizatzeko plangintza egingo dio Andoaingo Udalari.



# BORDA Jateetxea

A N D O A I N



ENPRESEN ZENTRUA  
Ama Kandiada z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923  
ANDOAIN

## PORTUGALERA BIDAIA

**Uztailaren 4tik 11era  
iraungo du bidaiak**

**1** 8-30 urte bitarteko gazte-  
ei zuzenduriko bidaiak antolatu  
du Andoaingo eta Lasarteko  
Udalak. Portugalera joateko au-  
kera dute herri horietan errolda-  
datutako gazteek, eta 11.469 pe-  
zeta ordaindu beharko dute. Au-  
tobuseko literetan egingo dute lo  
eta norberak bere jana eraman  
beharko du. Autobusean lekurik  
balego, herritarrak ez diren gaz-  
teak ere joan ahal izango dira.  
Prezioaren barnean autobusa,  
kanpina, istripu segurua eta  
erresposabilitate zibila sartzen  
dira. Bidaiara joan nahi dutenek  
Andoaingo Udaleko bulegoetara  
joan beharko dute maiatzaren  
12tik ekainaren 6a bitartean,  
goizeko 9etatik 13etara.

## «BASTERO» ETXEA BOTA EGIN DUTE

**Hondakin moduan deklaratu zuten**

**K**aleberriko Bastero etxearen zati bat bota egin dute. Euskal Herriko Jus-  
tizi Auzitegi Nagusiak arrazoia eman zion Andoaingo Udalarari etxe hori hon-  
dakin moduan deklaratzeko orduan. Azkenik, eta ia urtebetez etxearen jabe-  
kin negoziaketetan ibili ondoren, etxea bota egin dute. Hala ere, ez dute etxe  
osoa bota, izan ere, etxearen zati bat oraindik ez dute hondakin moduan de-  
klaratu. Zati hori bota arte ezingo da etxe berririk berririk eraiki.



Argazkia: J.I. Unamue

## 1.700 MILIOIKO AURREKONTUA

**IU-EB, HB eta PPk aurrekontuaren aurka bozkatu zuten**

*Partidu guztiak 1997. urterako aurrekontua-  
rekin ados ez egon arren, PSE-EE, PNV-  
EAJ, eta EAren aldeko botuekin 1.700 milioi-  
tako aurrekontua onartu du Andoaingo  
Udalak. IU-EBko zinegotzia den Nicolas Pé-  
rez Barbonen esanetan aurrekontuak ez du  
legea betetzen. Arrazoi horregatik, aurre-  
kontuaren aurka bozkatu zuen Nicolas Pe-*

*rezek. Baina azkenean aurrekontua onartu  
egin zenez, errekurtsioa aurkeztuko zuela  
adierazi zuen IU-EBko zinegotziak. PPko  
eta HBko zinegotziak ere aurrekontuaren  
aurka agertu ziren. HBko Juan Joxe Petriko-  
rena zinegotziak aurrekontua egiterakoan  
herritarren parte hartzerik ez zela izan azpi-  
marratu zuen.*

**A**urtengo aurrekontuak batzorde bakoitzari diru  
kopuru gehiago emango dio. Aipatu beharrekoa da us-  
te ez ziren dirulaguntzak jasoko bide direla, eta beraz,  
200 milioi beste inbertsio batzuetarako erabiliko dira.

Zerbitzu batzordeak, onartu berri duten aurre-  
kontu horren bitartez, herriko zerbitzu eta behar na-  
gusiak aztertu eta bete egingo ditu. Lur azpiko zabor  
edukinontziak jarri eta herriko etxeen fatxadak gar-  
bituko ditu, besteak beste. **Euskara batzordearen** au-  
rrekontua eskola aldizkariarako, Udalarekin harrema-  
na euskaraz nahi dutenen zentsurako eta Rikardo  
Arregi kazetaritza sarirako izango da. **Hirigintzako**  
batzordeak berriz, hilerriko zabortegia jarri, Gazte-  
txe berria egiteko dirulaguntza eman eta Leizotzeko  
bidea berrituko du. **Kultura batzordeak** Isturitzaga

dorrearen teilatua konpondu eta dorrea erosiko du.  
Gainera, Bastero gune kulturala egiteko erabiliko du  
dirua. **Gazteria batzordearen** aurrekontua heziketan,  
kaleko dinamizazioan eta langabetuekin gastatuko  
da. **Gizarte Ongizate batzordeak**, azkenik, tratu txar-  
rak jasandako emakumeentzako pisuak eta eguneko  
egoitzako gastuak ordaintzeko erabiliko du dirua.

Jose Antonio Perez Gabarain alkatearen esanetan,  
aurrekontu horren onarpenak legealdiaren hasierako  
helburuak betetzen doazela baieztatzen du. Gauzak  
horrela, 1.000 etxebizitza egin, industri lurrak urba-  
nizatu, eta kirola, kultura eta zerbitzu batzordeei  
bultzada emango die Gobernu Batzordeak aurrekon-  
tuaren bitartez.



Argazkia: J. I. Unanue

## LEITZAUUR ZIKLOTURISTAK

**A**ndoaingo Leizaur txirindulari elkarteko txirindulariek taldearen argazki ofiziala atera dute. Errepideko eta mendiko bizikletan dabilen txirindulari asko agertu zen San Martin elizako eskaileretara argazkian ateratzeko. Ondoren, bizikletan kilometro batzuekin eta adiskidetasunaren eguna ospatzeko asmoz hamaiketako izan zuten Larraulen.



## JOXE MARI URDANPILLETA KALEAN

**A**pirilaren 22an utzi zuten aske Joxe Mari Urdanpilleta andoaindarra. Frantziako eta Espainiako gartzela ezberdinetan 10 urtez egon ondoren, 1995. urtean, bere aitaren osasun arazoak zirela eta, Martutenera ekarri zuten familiaren ondoan egoteko. Azken denboraldia, ordea, Almerian igaro du. Bere zigor osoa iaz bete zuen arren, denbora gehiago egon dela gartzelan adierazi zuten ongiatorrian. Herriko Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta herriko beste talde batzuek ongiatorria egin diote herrian.

## San Juanak iragartzeko kartel lehiaketa

**Lanak maiatzaren 26an eta 27an  
aurkeztu behar dira**

**S**an Juan jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatzen du Udaleko Kultura Batzordeak. Lehiaketa herri mailakoa izango da eta Andoainen jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenentzat izango da. Kartelak 60 cm-ko altuera eta 42 cm-ko zabalera izan behar dute eta neurri horietako marrazkia egin behar da. Koloretan egingo dira lanak eta guztietan "SAN JUANAK 97 ANDOAIN" esaldia agertu beharko du.

### EPEAK ETA SARIAK

Lanak Urigain Kultura Etxean aurkeztu behar dira maiatzaren 26an eta 27an, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Lan bakoitzarekin batera kartatzal itxi bat entregatuko da. Kartazalaren kanpokaldean egilearen adina eta leloa ezarriko dira. Kartazalaren barruan berriz, autorearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa.

Parte hartzaileak, adinaren arabera, bi maila ezberdinetan bereiztuko dira: hamazazpi urtetik gorakoak eta hamabitik hamazazpi urte bitartekoak.

Sariei dagokionez berriz, bost sari banatuko dira:

17 urtetik gorakoentzat

1. Saria 42.000 pta.
2. Saria 18.000 pta.

12-17 urte bitartekoentzat


1. Saria 10.000 pta.
2. Saria 8.000 pta.
3. Saria 6.000 pta.



# BASERRIEN APAINKETAK

## Urriaren 31 rako txukundu behar dira baserriak

«5B Helburua» programak eta Asteasuko Udalak herriko baserriak txukuntzeko eta apaintzeko dirulaguntza emango diete eskaera egin duten baserritarrei. Apainketa lanen kostuen %65a ordainduko dute, eta gehienez 100.000 pezeta emango diote baserritar bakoitzari. Hiru urtean zehar emango dituzte dirulaguntza hauek, eta herriko baserriek, eta oro har, herriak berak itxura politagoa edukitzea da lortu nahi dutena.



*Lanak egin ondoren jasoko dute dirulaguntza.*

**A**tzo amaitu zen dirulaguntza eskuratzeko izena emateko epea, eta ekainaren 6an erabakiko dute zein baserri eman dirulaguntza. Izan ere, Asteasuko Udalak diru kopuru jakin bat du apainketa hauek subentzionatzeko, eta dirua baino baserriak txukuntzeko proiektu gehiago baldin badaude, udalak berak aukeratuko du zein proiektu subentzionatu eta zein ez. Aurten dirulaguntza jasoko ez duten baserriek datozen urteetan jasoko dute dirulaguntza.

Behin dirulaguntza jasoko duten baserriak aukeratu, urriaren 31era arteko epea emango diote baserritar bakoitzari apainketa lanak egiteko. Txukuntza lanak era guztietakoak izan daitezke, baina gehienbat, baserriaren ezaugarri historikoak mantentzeko eta eranskin itsusiak -hormigoizkoak, adibidez- kentzeko lanci emango zaie lehentasuna.

### BASERRI POLITENARI SARIA

Dirulaguntza hauek Asteasun eta 5B Helburua programak biltzen dituen herri guztietan banatuko dira. Behin lanak amaitu ondoren, herri bakoitzeko baserri politenen artean bat aukeratuko dute baserri politen gisa. Baserri horrek 100.000 pezetako saria jasoko du.

### • Maiatzak 15, San Isidro eguna

Goizeko hamaiketako mezak eman zion hasiera San Isidro egunari. Baserritarrez jantzita eta baserriko lanabesak eskuan zituztela izan ziren baserritarrak mezetan, aspaldiko usadioari jarraituz. Ondoren idi probak izan ziren plazan, eta Irazusta eta Barriolaren idiak Olarre Goikoa baserriko idiekin lehiatu ziren. Bazkaria egin ondoren, trikitalari eta bertsolarien saioa entzun eta baserrira itzuli ziren baserritarrak ilundu aurretik egin beharrekoa lanak egitera.

### • Oskorri herrian

Ekainaren 7an Oskorri taldea etorriko da Asteasura. Aurten 25 urte bete dituen musika talde ospetsu honek, Kukubiltxo eta Kepa Junkeraren laguntzaz eskainiko du kontzertua. Emanaldia iluntzean izango da, plazako frontoian.

Egun berean, arratsaldean, ziklo kros lasterketa izango da herrian. Bestalde, ekainaren 6an pailazoak etorriko dira herrira haurrekin jolastera. Takolo, Pirrux eta Porrotx izango dira pailazo horiek.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa*  
*fundación*

### VIDEO CLUB



Bideo zintak alokatzen dira  
CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba

Txermin kalea, 21 behea BILLABONA

# BULARRETAKO MINBIZIA

## Emakume helduak mamogra- fia egitera gonbidatu dituzte

*Bularreko minbizia aurrikusteko eta sendatzeko kanpaina egiten ari da Osakidetza. Hori dela eta, hitzaldia eskaini zuten duela gutxi herrian, eta bertan, minbiziaren nondik norakoak eta gaixotasuna aurrikusteko moduak azaldu zituzten.*

**M**inbizia hitzak beldurra sortzen du gaixotasun sendagaitza dela iruditzen zaigulako eta zerk sortzen duen ez dakigulako”, azaldu zuten Osakidetza kideek. Era berean, gaixotasuna zein fasetan detektatzen den garrantzitsua dela adierazi zuten minbizia sendatzerako garaian. Horrezaz gain, gorputza eta elikadura zaintzea gomendatu zuten minbiziaren arriskua baztertzeko.

### MAMOGRAFIA ASKO EGITEA EZ DA KOMENI

Bularretako minbizia aurrikusteko bakoitzak bere bularrak aztertzea, medikuarengana joatea, eta adinaren arabera, noizik eta behin mamografiak egitea gomendatu zuten.

“Arraza zuriko emakume helduek dute bularretako minbizia edukitzeko aukera gehien. Bestalde, bularrak eta obarioak harremanetan daude, eta menopausia garaian, hormonon desoreka ematen denean, minbizi hau agertzeko aukera gehiago dago”.



*Gehienbat emakume helduak ziren hitzaldira joan zirenak.*

Mamografiak egiteko gonbidapena luzatu arren, hori egin aurretik bakoitzak bere bularrak aztertzea eta medikuarengana joatea hobe dela adierazi zuten: “Mamografiak emakume helduek egin behar dituzte, ez gazteek. Batzuek urtean behin, besteek bi urtean behin..., bakoitzaren adinaren arabera zehaztuko da mamografiak egiteko maiztasuna”. Izan ere, mamografiak irradazio txiki bat sortzen dute, eta irradazioek minbizia sor dezakete.

**! Jaietako egitarau azalerako lehiaketa**

**E**kainaren 27a baino lehenago aurkeztu beharko dira aurtengo Santiotako programaren azala egiteko proposamenak. Kultur Erxean aurkeztu behar dira Billabonako marrazkizale eta argazkizaleek burutuko dituzten proposamen horiek. 30.000 pezetako saria jasoko du jaietako egitarauaren azalerako erabiliko duten marrazkia edota argazkia egiten duenak.

**ORTE**  
CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

**EGUZKITAKO  
BETAURREKOTAN  
AUKERA ZABALA**

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN  
☎ 59 18 17

**AHOLKULARITZA  
ARTEZKARITZA**

**IRAOLA**

ENPRESEN AHOLKULARITZA:  
FISKALA, DIRUKONTUENA,  
JURIDIKOA, LABORALA,  
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37  
Tlf. 69 27 63  
Fax 69 27 74  
**20150 BILLABONA**

**Herri Beltz**  
Taberna

Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

# ETXEGARATEKO ERREPIDEAREN AUZIA


## Errepidearen bikoizketa lanak egitearen alde ari da udala

*Etxegarate mendateko errepidearen bikoizketa lanak 1999. urterako bukatu behar dira errepidetako plangintza orokorraren arabera. Baina lanak hasteko daudenez, nahikoa zaila izango da data horretarako bi bideko errepidea egitea Etxegarateko mendatean. Gauzak horrela, Goierri, Tolosaldea, Sakana eta Arabako lautadako udalerriek plataforma bat osatu dute lanak lehenbailehen hasteko eskatzeko. Gipuzkoako Diputazioari bikoizketa lanak noiz hasiko dituen eta lanak egiteko zenbat diru inbertituko duen galdetu diote. Diputazioak Maltzaga-Urbina errepidea eta Etxegarateko bikoizketa lanak batera egingo dituela adierazi du. Baina lanak noiz egingo dituen eta horretarako erabiliko duen dirukopurua ez du zehaztu.*

**T**olosaldeko udalerrri gisa hartzen du parte Billa-bonako Udalak Etxegarateko errepidea bikoiztearen aldeko plataforman. Tolosaldeko udalerriez gain, Goierriko udalerrri ia guztiek hartzen dute parte bertan Sakanako eta Arabako lautadakoekin batera. Duela hilabete batzuk sortu zen plataforma honek Etxegarateko errepidearen bikoizketa lanak lehenbailehen hastea nahi du. Horretarako, behin baino gehiagotan galdetu diote Gipuzkoako Diputazioari lan hauen nondik norakoaz. Oraingoz, Maltzaga-Urbina errepide berriarekin batera egingo dutela eta dirukopuru bat horretarako erabiliko dutela da Diputazioaren aldetik jaso duten erantzuna. Plataformakoak, ordea, ez dira konformatu erantzun honekin. Izan ere, Diputazioak ez du zehaztu lanak egiten noiz hasiko den, noiz bukatuko duen edota zenbat diru erabiliko duen.

### 2002. URTERAKO LANAK BUKATZEA NAHI

Plataformak Etxegarate mendateko errepidearen bikoizketa 2002. urterako bukatuta egotea nahi du. Bien bitartean, Diputazioarekin bilerak egiten eta kanpaina ezberdinak egiten jardungo du. Gauzak horrela, Gipuzkoako alderdi politiko guztiekin bilduko dira plataformako kideak Etxegarataren bikoizketaren aldeko arrazoia azaltzeko.



*Kamioizale ugari pasatzen da Etxegarateetik.*

**HILERO BI  
GUTXIAGO  
HARTUTA...**



# ARBONARA TXANGOA

## Urtero joaten dira Zizurkildarrak Arbonara bertako Kultur Etxearen urtemuga ospatzera

Maiatzaren 3an joan eta hurrengo egunean itzuli ziren herrira hainbat zizurkildar Iparraldeko Arbona herritik. Maiatzaren lehenetik hirura arte ekintza ugari antolatu zituzten Arbonan bertako bizilagunek, izan ere, Arantzola izena duen Kultur Etxearen 10. urtemuga ospatzen zuten. Etxe berean elkartu ziren mugaren bi aldeko lagunak, eta hiru egunetan Arbonako lagunak egin zuten lana saritzeko edo, zizurkildarrek prestatu zuten bazkaria ospakizunak amaitu ondorengo egunean.

**Z**izurkil Zutik taldeak antolatuta Iparraldeko Arbona herrira joan ziren Zizurkil goiko 60 lagun inguru maiatzaren hiruan. Egun hori arte ekintza eta ospakizun ugari izan ziren Arbonan Arantzola Kultur Etxearen 10. urtemuga ospatzeko. Beraz, eta egun horietan bertako bizilagunak nahikoa lanpetuta ibiliko zirelakoan, jaialdia amaitu zen egunean joan ziren zizurkildarrak Arbonara. Gauzak horrela, Iparraldeko lagunekin hitz egiteko aukera hobea izan dute zizurkildarrek behin

ospakizun guztiak amaitu eta gero, eta arbonatarrek ere gogo onez hartu zuten zizurkildarrek prestatutako bazkaria. Hainbat gaitaz luze eta zabal hitz egiteaz gain, jan-edanerako eta parrandarako aukera ezin hobea izan zuten bertan bildutakoek.

### MATTIN CARRERE

Arbonako Mattin Carrere apaizaren bitartez dute harremana Arbona eta Zizurkilgo herritarrek. Apaiz horrek lan ugari egin du, eta egun oraindik egiten ari da, herriaren eta euskal kulturaren alde. Horren ondorioz, euskal gazteen mugimendu dinamikoa dago milatik gora biztanle dituen nekazal herri txiki honetan.

### ARANTZOLA ZIZURKILDARREN ESKURA

Arantzola Kultur Etxea uzolanean eraiki duten herritarrek biltzeko etxe bat da. Euskal kultura, euskara, herriko kezka, eta finean, herritarrek topatzen diren lekua da etxea hau. Jangela, sukaldea eta lo egiteko lekua dago, eta Zizurkilgo gazteak bertara joateko aukera dute horrela nahi izanez gero. Beraz, herriko gazteak bertara joan nahi baduzue Zizurkil Zutik elkartekoekin harremanetan jarri besterik ez duzue egin behar.



Arantzolaren 10. urtemuga irudikatzen duen kartela.

**HERCULES**  
Aseguruak ARGENTARIA  
Amaia Kontajarena  
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 39 37 34  
**ZIZURKIL**

**SOTO**  
eletrizitatea  
• ELEKTROGAILUAK  
• MATERIAL ELEKTRIKOAK  
Santiago kalea z.g. BILLABONA  
☎ 69 11 73

**AIURRI**  
TFNOA.: 300732  
FAXA: 300731  
DR. HUIZI, 15 1. ESK.

**Loatzo**  
LANPARRAK VEZARROAK  
KOETXOAK OPARRAK  
Errota kalea, - 3 ☎ 69 21 35 BILLABONA

**FRANCISCO MENDIKUTE**  
Harategia  
  
Kaletxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

**BENITO**  
HARATEGIA URDAITEGIA  
Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49  
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50  
**BILLABONA**

Zizurkil

# «POTTOK» PONI KLUBA

## Lardamuño baserrian dituzte ikuiluak eta ekitazio klaseak emateko pistak

-Nolatan hasi zineten poniak hezi eta saltzen?

Zizurkilera bizitzera etorri ginenean poniak hazten hasi ginen. Hasierran gutxi batzuk hazi genituen baina piskanaka poni eta zaldi kopurua gehituz joan gara, berrogeita hamar zaldi izatera iritsi arte. Poniak hazi eta klaseak emateaz gain, saldu egiten ditugu. Zaldiak berriz, jende helduak zaldiz ibiltzen ikasteko erosi genituen, eta prestakuntza horretarako behar den denbora guztia kontutan izanik ez saltzea erabaki dugu.

-Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Jendeak gehien ezagutzen duena zaldian ibili ahal izateko klaseak dira. Klase horiek eman ahal izateko poniak eta zaldiak hazi eta hezi egin behar dira. Beraz, zaldia domatu egiten dugu gero edozein pertsona zaldi gainean ibili ahal izateko. Horrezaz gain, poniak saldu egiten ditugu eta zaldien apopilotza zerbitzua ere eskaintzen dugu. Horrela, kanpoko edozein pertsonak bere zaldiarentzat leku falta edukiz gero, gure ikuiluetan zaldia edukitzeko aukera du. Ponia erosi beharrean hiru urtetan ponia gure ikuiluan edukiz gero, ponia oparitu egiten dugu. Udaran eta aste santuan baserrian zenbait egun igarotzeko aukera eskaintzen diegu gaztetxoek.

-Zaldi gainean ibiltzea ez al da nahikoa zaila?

Ez. Pertsona askorentzat kirol elitista da, baina hori ez da horrela. Egunetik egunera haur eta gazte gehiago animatzen dira zaldian ibiltzen ikastera. Edonork ikas dezake zaldi gainean ibiltzen, baina zaldian ibiltzeko edota postura egokia hartzeko denbora behar da. Zaldia erostea eta mantentzea garestia da, baina zaldi gainean ibiltzen ikasteko klaseen prezioa guztien poltsikora egokituta daude. Kirol guztien artean sexista ez den kirola da, gainera. Sexu bereko animali eta pertsonak lehiaketa eta proba berdinetan hartzen dute parte, denek batera.

-Zenbat kostatzen dira klaseak?

Ordubate zaldi gainean ibiltzea 1.400 pezeta kostatzen da, ponian ibiltzen ikasteko berriz, 1.200 pezeta ordaindu behar dira. Hamabi ordu-

Poni arrazako pottokak eta zaldiak klaseak emateko prestatze lanetan dabiltza burubelarrari Pottok enpresako langileak. Animaliak tratatzerako orduan psikologiak garrantzi handia duela azpimarratu digu bertako buru eta albaiteko den Nerea Asurmendik. "Egunero ordu asko pasa behar da zaldia ondo hazi eta klaseak emateko prestatzeko".



Neskatila askok jasotzen dituzte klaseak.

tako bonua (bost hilabetetara balioa galtzen du) eginez gero, zaldian ibiltzea 14.000 pezeta kostatzen da, eta ponian ibiltzea aldiz, 12.000 pezeta. Zaldi partikularrak Lardamuño baserriko ikuiluetan uzteagatik hilaletoko kostua 28.000 pezetakoa da, eta poniarena berriz, 25.000 pezetakoa.

-Zein zainketa mota behar dituzte zaldi eta poniak?

Animaliak direnez, egunero zaindu eta mimatu behar dira. Hiruzpalau alditan jaten dute egunero. Lo egiteko lekua egunero txukundu behar zaie, eta kalcan paseatu edota ibili behar dira, klaseetako erritmoa mantentzeko. Zaldi gainean ibili ahal izateko,

zaldiari nabiz pertsonari erakutsi egin behar zaio zer egin eta nola egin.

## HILERO BAT GUTXIAGO JANEZ GERO ...

# Lehenengo Jaunartzea



Argazkia: Moises. 1966

## Erlijioa baino kontsumoa bihurtzen da garrantzitsuago

Lehen Jaunartzea egingo duten gaztetxoak urduri egongo dira ziurrenik. Jauna hartzera doaz lehenengo aldiz eta hiru urtetan aritu dira hori prestatzen. Haurrak urduri daude oso, baita gurasoak ere. Haurrak zein opari eta zenbat jasoko dituzten zain daude; gurasoek berriz, arropa, bazkaria eta gauza guztiak ondo egotea eta gonbidatu guztiakin ondo gelditzea dute arazorik nagusia. Azkenean, Jauna hartzen duten egun hau, kontsumozko egun bilakatu da, izan ere, eta bizitzan behin egiten denez, diru asko gastatzen du jendeak. Eliza ez dago egun horrek hartu duen esanahiarekin guztiz ados, egungo eliz ospakizun guztiak kontsumozko ospakizun bihurtu baitira.

nartzeko argazkiekin. Horrezaz gain, Jaunartze eguneko oroigarriak ere egiten ditugu.

## M

aiatza jaunartzeen hilabetea izan ohi da. Aurren, beste urteetan bezala, zortzi-bederatzi urteko gaztetxoak urduri baina ilusio guztiarekin aldarera igoko dira Jauna hartzera eta kristau fedea indartzera. Egundorren benetazko esanahia kristautasun fedea indartzea den arren, badirudi hori ahaztu egin dela, eta horren adierazgarri, egun horretan gastatzen den diru kopuru altua da.

### Jantzia

Egun hori ospatzeko haurrek ez dute nolana hiko arropa jantzten. Neskaren jantzia erostera Donostiara joan ohi da jende asko. Eta egungo neskatilak ezkontzera doazen gaztetxoak dirudite beren soineko ponpo, ileko apaingarriak jantzita. Horrezaz gain, ileapaindegira joango dira egun horretan haurrak orraztera. Zizurkilgo Garbiñe ileapaindegiko arduradunak, neskatilak ile luzea edukitzeko ilusioa izaten dutela adierazi digu: "Neskatila gehienak ile luzea uzten dute egun horretarako. Ile lisoa, trentza edota orrazkera sinpleak eraman ohi dituzte neskatilek egun horretan. Mutilek berriz, ez dute ileapaindegira joateko ohiturarik".

Jauna hartu behar duten neska-mutilen amak ere joaten dira ileapaindegira. Beren janzkera eta orrazkera asko zaintzen dute, izan ere, umetaz gain, egun horretan gurasoak ere protagonistak baitira.

### Argazkiak

Jauna hartzen duten umeek egun hori gogoan izateko argazkiak ateratzen dituzte. Erreportai argazkiak egiten dituzte askok argazki estudioetan. Horrezaz gain, argazki kamara eta bideoa eramaten duen norbait izan ohi da ia familia guztietan. Andoaingo Fotocolor argazki dendako arduraduna den Jose Ignaciok azaldu digunez, maiatzeko Jaunartzeak direla eta hilabete lehenago lan ugari izaten dute: "Normalean eskaintza bereziak egiten ditugu Jau-

### Bazkaria

Jauna hartu ondoren dator ospakizun handiena. Jate-txea eta menua aukeratzea buruhauste handia izaten da askorentzat. Batzuek adibidez, Jaunartzea baino urtebete lehenago eskatu dute tokia jatetxean. Jaunartze eguneko bazkariaren berri izateko Andoaingo Borda eta Amasako Arantzabi jatetxera joan gara. Jatetxeetako arduradunak esan digutenez ez dago menu bakar bat bazkarirako; gurasoak dira menua aukeratzeko dutenak. Zizka-mizkak, urdaiazpiko iberikoa, ganbak, piper beteak, langostinoak,

### JAUNARTZE EGUNEAN GASTATU OHI DENA, GUTXI GORABEHERA.

<b>Ileapaindegia</b>	Neskatilek	1.800 pta
<b>Jantziak</b>	Neskatilek	25.000 pta
	Mutilek	15.000 pta
<b>Argazkiak</b>	Erreportaia eta oroigarriak	15.000 pta
<b>Bazkaria</b>	20 pertsona	90.000-140.000 pta
<b>Opariak</b>	Detaileak 20 lagunentzat	6.000 pta
<b>Haurrentzako opariak</b>		10.000-20.000 pta

**175.000 pezeta guztira.**  
(Guraso edota anai-arreben gastuak kontutan hartu gabe)



## 1997. URTEAN JAUNA HARTUKO DUTEN GAZTETXOEN KOPURUA

NON	NOIZ	HAUR KOP.
<b>ANDOAIN</b>		
San Martin elizan	Maiatzak 4	61
	Maiatzak 11	11
Santa Krutz elizan	Maiatzak 25	6
Sorabillako elizan	Maiatzak 25	9
<b>BILLABONA</b>		
	Maiatzak 11	24
	Maiatzak 18	8
<b>ZIZURKIL</b>		
Elbarrenan	Maiatzak 11	18
Zizurkil goian	Maiatzak 25	7
<b>ASTEASU</b>		
	Maiatzak 25	10
<b>ADUNA</b>		
	Maiatzak 25	3
<b>LARRAUL</b>		
	Maiatzak	1
<b>GUZTIRA</b>		<b>158</b>

azpizuna (solomiloa), jaunartze tarta, ardoa, txanpaina, kafea eta likoreak eskatu ohi dituzte gurasoek Arantzabi jatetxean. Bazkari horren kostua, pertsonako noski, 6.600 pezetatakoa da. "Haurren menua desberdina izaten da, izan ere gutxiago jaten dute".

Andoaingo Borda jatetxeko arduradunak ere jaunartze bazkari ugari emango ditu maiatzean zehar. Menua, zizka-mizkak, haragiak edo arrainak eta tartak osatzen dute. Pertsona bakoitzeko 4.500 pezeta inguru gastatzen dute gurasoek. "Egun horretan jendearekin ondo gelditu nahi izaten dute, eta beraz, prezioa ez da oztopoa". Hogei pertsonetik gorako bazkariak izaten direla esan digute, gainera.

### Opariak


Egun handi horretako gauzarik garrantzitsuena opariak dira, haurrentzako behinik behin. Garai batean dirua edota gauza xume bat egiten zen bitartean, egun, zeinek opari handiagoa eta garestiago egin ibiltzen dira gonbidatuak. Ordenadoreak, bizikletak, arropa edota zapatila garestiak jasotzen dituzte oparizat. Gurasoek gain, gonbidatuek ere diru gastu handia izango dute, beraz, egun horretan. Baina badira gonbidatuei ematen zaizkien



bestelako detaileak. Ezkontzetan bezala, gonbidatuei detailetxo txikiren bat banatzen zaie egun horretan: "Gehienek jaunartzeko panpina oparitzen diete gonbidatuei. Haurrei, berriz, goxoki zorroak" adierazi digu Andoaingo Iñaxi gozodendakoak. Gastu horiek guztiak batzen baditugu izugarrizko zifra altua lortuko dugu. Egun bakar batean gastatzeko gehiegi. Egun horretako gastuak ordaintzeko kredituak eskatzen dituztenak ere badira.

**Oremendi**  
**Kirolak**

**AUKERA ZABALA  
KIROL ARTIKULUETAN**



**JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF: 59 18 06 ANDOAIN**

**Jose Ramon**  
TABERNA

**PINTXO EDERRAK!!**

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

# MUSIKA TALDE BERRIAK ETA MUSIKARI OSPETSUAK



Musika Eskola zaharrean entsaiatzen dute.

**AITOR GASTÓN** donostiarrak zuzentzen du Andoaingo musika banda. *Tronpeta jotzen irakasten die musika eskolako ikasleei, eta gainera, herriko Big Band musika taldeko partaide da. Andoaingo bandaren nondik norakoaz eta herriko musika egoeraz galdetzeko bildu gara berarekin.*



Andoaindarrek musika jotzea eta entzutea gogoko dutela argi dago, batek baino gehiagok baitu kontzertuetara joateko nahiz musika tresnaren bat jotzeko ohitura. Izan ere, musika eskola ikaslez gainezka dago, eta herriko musikarien emanaldiak ugari egin dira azkenaldian. Musika eskolakoek musika banda osatu berri dute, eta Susana Cencillo akordeoijoleak diska bat grabatu du Donostiako musika kontserbatorioko beste akordeoijole batzuekin.

-Zeintzuk jotzen duzue duela gutxi osatu duzuen musika bandan?

-Musika eskolako ikasleek eta herriko musikari gehiagok osatzen dugu musika banda eta guztira 34 musikari gara, nahikoa gazteak, gainera. Martxoan osatu genuen taldea, eta oraingoz gogo handiz ari gara zeregin honetan.

-Zein instrumentu eta abesti jotzen dituzue?

-Behar ditugun ia instrumentu guztiak daude bandan, oboea bakarrik falta zaigu. Jotzen ditugun abestiak berriz, ezagunak dira guztiak, jendeak abestiak erraz ikasteko, eta ondorioz, gogoz jotzeko. Maila altuagoa dugunean joko ditugu abesti zailagoak. Astean behin entsaiatzen dugu, musika eskola zaharrean, hain zuzen.

-Kontzerturik eskaini al duzue?

-Ziurrenik, San Juan jaietan eskainiko dugu lehenengo kontzertua, horretarako entsaiatzen ari gara gaur egun. Hala ere, ez daukagu nahi bezain beste denbora. Kontzertuak eskaintzea oso ona da, musika tresna jotzen ikasi dutenek hori demostratzeko aukera baitute bertan. Musika jo-

tzen jarraitzeko motibazio bat da.

-Big Band musika bandan ere jotzen duzu, ezta?

-Bai. Musika alaiagoa jotzen dugu talde horretan, blues eta jazz estiloko musika gehienbat. Talde horren bitartez musika tresnak jotzeko aukera bat gehiago eskaintzen diegu ikasleei.

-Musika eskolako ikasle askok jotzen dute banda horietan. Ikasle asko al dituzue eskolan, zer ikasten dute?

-200 ikasletik gora dauzkagu gaur egun. Haurrak dira gehienak, eta lau urterekin hasten dira musikaren lengoaia (garai bateko solfeo) ikasten. Zazpi urterekin musika tresna bat jotzen hasten dira, eta musika tresna ezberdin asko jotzeko aukera dute. Hala ere, eta nire iritziz, egungo haurrak lehengoak baino alferragoak dira. Izan ere, musika tresna jotzen ikasi nahi dute aurrez inolako solfeorik edota antzekorik jakin gabe. Baina instrumentu bat jotzen hasi aurretik musikaz zerbait gehiago jakin behar da. Gainera, aldatu egin dute musika ikasteko modua, oraingoa askoz ere arinagoa eta errazagoa da.

**"Musika  
banda musika  
jotzen jarraitzeko  
motibazioa da"**



**SUSANA CENCILLO**  
*andoaindarrak Espainia-ko lehenengo postua lortu zuen iaz Estatu guztiko akordeoijoleen artean egin zuten txapelketan. Portugalen berriz, mundu osoko akordeoijoleen arteko txapelketan, bederatzigarren postua lortu zuen. Andoaingo Urki dantza taldean eta txistulari bandan jotzen du, eta bizimodua akordeoia irakastetik ateratzen du. Hala ere, kontzertuak ematea da bere zeregin gustokoena. Duela gutxi, gainera, diska bat grabatu dute Donostiako goi mailako musika kontserbatorioko akordeoijole batzuen artean, eta horien artean dago Susana Cencillo herritarra.*



Susana Cencillo.

## “Akordeoiak fandangoa baino gauza gehiago jotzeko balio du”

-Egungo maila lortzeko oso gaztetatik hasiko zinen soinua jotzen, ezta?

-Duela hamabost urte hasi nintzen soinua jotzen, zortzi urte nituenean. Don Jose Angel apaiaren arrebeak erakutsi zidaten hasiera batean soinua jotzen, eta Donostiako kontserbatorioan jarraitu nituen gero ikasketak. Orain herrian badago akordeoia jotzen ikasteko aukera, baina lehen ez.

-Zergatik jotzen duzu akordeoia?

-Txiki-txikia nintzenetik dut gustuko akordeoia. Goiburuko jaietara joaten nintzen aldiro, jaietan jotzen zuten trikitilariak ikusten nituenero, nik ere akordeoia jo nahi nuela esaten nien gurasoei. Horrela hasi nintzen akordeoia jotzen, eta egia esan, kontzertuak emateko eta lehiaketetan parte hartzeko asko entsaiatu behar izan dut eta oraindik ere entsaiatzen dut.

-Donostiako kontserbatorioan klaseak emateaz gain, herrian ere ematen al dituzu klaseak?

-Bai. La Salle-Berrozpen, eskolaz kanpoko ekintza gisa, musika

erakusten diet haurrei. Haur txikiak erakusten diet, eta beraz, musikarekin jolasten aritzen gara, erritmoa, doinua eta horrelakoak lantzeko. Orain hobe ikasten dute haurrek musika, teoria eta praktika batera ikasten dute, instrumentua jotzen eta musikaren lengoia edota solfoa batera ikasten baitute.

-Donostiako goi mailako kontserbatorioko alordeoijoleek diska bat atera duzue. Kontzerturik eskainiko al duzue?

-Tomas Aragüen kantuekin osatu dugu diska, eta oso kanta ezberdinak dira guztiak. Kontzertuak ere eskainiko ditugu, eta beharbada, Euskal Herritik kanpo ere emango dugu kontzerturik.

-Akordeoiarekin nahi diren kantu guztiak jo al daitezke edota musika mota bateko

kantuak jotzeko bakarrik balio du?

-Akordeoia fandangoa eta arin-arina jotzeko dela uste dute askok. Baina hori ez da horrela, musika klasikoa, kontemporaneo eta horrelako gehiago ere jo daitezke akordeoiaz.

HILERO BAT  
 GUTXIAGO  
 EDANEZ GERO...



ASTEASU-LARRAUL

## ERNIOKO GURUTZEA

*Ernioko gurutzea.*

## Erniozaleak Kultur Elk

*Ernio mendiaren magalek hartzen dituzten bederatzi herri elkartu egin dira Ernioko gurutzearen eraikuntzaren 50. urtemuga ospatzeko, eta bide batez, gurutzeak eta inguruak behar dituen konponketak egiteko. Aia, Asteasu, Albizta, Larraul, Albiztur, Bidani, Errezil, Hernialde eta Beizama dira herri horiek, «5B helburua» programak biltzen dituen herriak, hain zuzen.*

**A**iarrek, errezildarrek eta asteasuarrek egin zuten duela berrogeita hamar urte Ernioko gurutzea. Hori dela eta, aurtengo abuztuan gurutzeak mende erdia beteko duelako, iaz, Aiako gazteak Asteasukoekin bildu ziren urtemuga horren inguruan zerbait egiteko. Garai hartan gurutzea egin zuten herritarrek omentzeaz gain, nahikoa hondatuta dagoen gurutzea konpontzea erabaki zuten, baita tximistorratza jartzea ere gurutzearen puntan. Horrezaz gain, Ernion bertan dauden orientazioa mahaia eta borda (aterpetxe gisa erabiltzeko) konpondu egin behar zirela pentsatu zuten bi herrietako lagunek. Baina borda Errezilgo lurretan dagoenez, eta gurutzea berriz, Albizturkoetan, bi herri hauei eta Ernioaren inguruko gehiagori ekimenean parte hartzeko proposamena egin zieten. Gauzak horrela, azkenean, bederatzi herri bildu dira lan eta ospakizun horiek egiteko, guztiak *5B helburua* proiektuaren partaideak. *5B* proiektuak berak ordainduko ditu berrikuntza lanen kostuen erdia, eta beste erdia berriz, bederatzi herrietako udalek ordainduko dute. Guztira, 10 milioi pezetako kostua izango dute lanek.

## AUZOLANA ETA KULTUR ELKARTE BERRIA

*Konpondu behar duten borda.*

Pentsatutako lan guztiak nola egin erabakitzeko bederatzi herrietako lagun pare bat joaten dira ostiralero Asteasura. Bertan lanen nondik norakoak erabakitzen dituzte, eta ondoren, herri bakoitza hartu duen ardura betetzen saiatzen da herrian bertan horretarako sortu diren taldeen bitartez. Eraikuntzak berritzeko proiektuak langile kualifikatuek egin arren, auzolanean egingo dituzte lanak. Hau da, lanen nondik norakoak langile kualifikatuek zuzenduko dituzte baina eskulana herritarrek jarriko dute. "Lanak auzolanean eginaz herrien arteko harremanak sendotu egingo ditugu", adierazi digute ekimenaren arduradunek. Izan ere, eta auzolanaren helburuetako bat lanak ahalik eta merkeen izatea bada ere, herritarren artean harremanak sakontzea da auzolanaren beste helburu bat.

# REN 50. URTEMUGA

## karrea berria sortu dute

*Ostiralero Asteasun biltzen dira herri horietako gazteak Ernio egin beharreko lanak zehazteko, eta herri bakoitzean ere biltzen dira zeregin horiei jarraipena emateko. Beraz, bederatzi herri horiek bereizten dituen Ernio mendiak, herriak bereizteaz gain, elkartu ere egin ditu, eta horren adibide da osatu berri duten Erniozaleak Kultur Elkarteak.*

*“Lanak auzolanean eginez herritarren arteko harremanak sendotu egingo ditugu”*

Ildo bera jarraituz sortu dute Erniozaleak Kultur Elkarte berria. Konponketa lan hauek egiteko eta Ernioaren inguruko herritarrek biltzeko osatu dute Kultur Elkarteak. “Lana ez da bukatzen gurutzea, borda eta orientazio mahaia konpontzean; eraikuntzak egoera onean mantentzeko zaindu egin behar dira. Lan hori beteko du Erniozaleak Kultur Elkarteak”, adierazi digute bertako kideek elkartearen zereginaz galdetzean. Horrez gain, herri bakoitzetik Erniora igotzeko dauden bideak seinalizatu eta mendizaletasuna nahiz herrietako ohiturak eta kultura landu nahi dute Kultur Elkartearen bitartez.


### ABUZTUAK 31A, GURUTZEAREN URTEMUGA

Duela berrogeita hamar urte orain baino lan gehiago egin behar izan zuten gurutzea egin zuten herritarrek. Mandoan igo zuten orduan gurutzea egiteko materiala, ez orain bezala, helikopteroz igo dutela material guztia. Lehen, festa eta taberna gutxiago zeudean, Zelatun zuten Ernio inguruko herritarrek bilgune. Bertan bilatzen zituzten andre-gaiak edota senargaiak, bertan aritzen ziren berriketan eta apostuan.

Garai hartako festa giroa gogoratu nahian eta gurutzea egin zutenak omentzeko, festa antolatuko dute abuztuaren 31rako. Bazkaria, trikitilariak eta antzekoak izango dira egun osoan zehar, eta nola ez, gurutzea egin zutenei oroigarri bana emango diete. Egunduan inauguratuko dute borda, eta orduarako beraz, borda, gurutzea eta orientazio mahaia erabat berrituta izango dira.



*Helikopteroz igo zuten lanak egiteko behar den materiala.*



*Orientazio mahaia.*

*Zelatun izan da eta da Ernio inguruko herrien bilgunea*

Asteasu

## Santa Ageda. 1933



**Goian ezkerretik eskuinera:** Jeronimo Uzkudun, Joakin Urruzola, Jose Eizmendi, Juan Jose Otero, Karmelo Iraola eta Natalio Beobide.

**Behean ezkerretik eskuinera:** Ignazio Gabirondo, Hilario Usandizaga, Pablo Galdos, Ramon Otero, Jaime Bidaurreta, Juan Bautista Usandizaga, Pedro Elizegi, Juan Arrate eta Enrique Segurola.

Koadrila handi batean irtetzen ziren garai batean Asteasuko mutilak -neskak ez ziren irtetzen Santa Ageda egunean kantuan. Ignazio Gabirondok jolzen zuen soinua, eta Pedro Elizegi Deillo Errotaren ilobak berriz, bertsoak abesten zituen. Ohituragatik eta norbait laguntzeko xedearekin irtetzen ziren kantuan, eta urte horretan alargun gelditu zen gizon bati eman zizkioten etxez etxe bildutako xoxak. Gizon alar-

gunak bost seme-alaba zituen. Garai hartan, gaur egun bezala, bildutako dirua beharra zutenei laguntzeko izaten zen.

Cure deiari jarraituz, zuen argazki zaharrak gure aldizkarian argitaratzeko deiari alegia, **Arantxa Usandizagak** eman digu argazkia eta bertako informazioa. Eskerrik asko, Arantxa.

**Oharra**

Etxean hauts tartean gordeta dituzun argazki zaharrak Aiurrin azaldu nahi baldin badituzu, deitu ezazu gure egoitzara. Aldizkariko kazetariak zurekin harremanetan jarriko dira argazkiaren kopia bat ateratzeko eta bertako informazioa jasotzeko. Aiurriren telefonoa 300732 da.



**ALOTZ**  
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN

*Ageliseritza*  
**USABIAGA**

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa  
Tel. 69 35 60 - 69 34 35  
**20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)**

**PATXINE**  
**JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL  
SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK  
Errementari, J ☎ 69 10 25 - ASTEASU

## Marilu Marzol. Liburu saltzailea.



-Zergaitik ospatzen da apirilaren 23an liburua-  
ren eguna?

Egun horretan Cervantes hil zen, eta beraz, liburuari omenaldia egiteko egun aproposa da. Nazioarteko eguna da, hau da, mundu guztian zehar ospatzen da liburua-  
ren eguna.

-Liburuak oparitzeko ohitura dago egun horre-  
tan, ezta?

Gehienek, egun honetan, liburu bat opari-  
tzen diote norbaiti. Hori dela eta, idazle askok  
apirilera idazten dute beren liburua, egun ho-  
rretan liburu asko saltzen baitira. Bartzelonan  
larrosak ere oparitzen dituzte.

-Liburudendek zerbait berezia egiten al dute  
egun horretan?

Egun horretan liburuak %10 merkeago sal-  
tzen dira. Liburuaren eguna dela adierazteko  
edota zenbait liburu iragartzeko kartel deiga-  
rriak jarri ohi dira erakuslehoan, baina horrezaz  
gain, ez da askoz gehiago egiten. Hala ere, aurt-  
ten, liburu asko saldu dira Andoainen. Donos-  
tian eta horrelako herri handietan berriz, kalean  
jartzen dituzte liburu postuak, baina Andoainen  
ez dago hori egiteko ohiturarik.

-Jendeak irakurtzeko ohiturarik ba al du?

Bai. Urte guztian zehar liburu asko saltzen  
dira. Bitxikeria moduan, eta salmentetan ikus  
daitekeenez, aipatu beharrekoa da emakumez-  
koek emakumeek idatzirik liburuak irakurtzea  
dutela gustuko.

-Zein liburu saldu da gehien Euskal Herrian?

Gehien saldu den liburua Antonio Muñoz  
Molinaren *Plenilunio* liburua izan da. Hori dela  
eta, *Euskadi de Plata* saria jaso du. Oraindik ez  
da zehaztu noiz emango dioten sari hau, baina  
merkatal ganbarako arduradunak eta liburusal-  
tzaileen lehendakariak emango diote saria Kol-  
do Mitxelena. Gehien saldu den hurrengo li-  
burua Antonio Galaren *Poemas de amor* izan  
da.

## PERTSONAIA EZKUTUA




Aiurriren irakurleek asmatu beharre-  
ko pertsonaia berria ezaguna da oso. Lehen ere gure aldizkarian atera izan  
da, izan ere, Beterrri-Aiztondo bailarako  
herritarra da. Horrezaz gain, bere lanbi-  
dea dela eta, gazte eta heldu guztiek  
ezagutzen dute.

Saria bikaina da oraingoan ere: An-  
doingo Alfaro jatetxeak bi lagunent-  
zako afaria eskaini digu oparizat.

Lehiaketan parte hartu nahi duzue-  
nok bidal itzazue zuen gutunak honako  
helbidera lehenbailehen: Aiurri aldiz-  
karia, Doktor Huizi 15, 1 eskubia.  
20.140 Andoain. Idatz ezazue zuen te-  
lefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

**ALFARO**  
**JATETXEA**

EGUNEROKO MENUA  
Etxeberrieta auzunea  
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**



## ANTZERKIA

## BILLABONA

*Maiatzak 16:* Txalo taldearen "Xagu tranpa" antzezlan. Gurea zinema artoan, gaueko 22:30etan.

## ERAKUSKETA

## ANDOAIN

*Maiatzak 9-18:* Xanti Iruretagoienaren pintura erakusketa. Orduetgia: As-  
tegunetan 10:30etatik  
12:30etara eta 18:00etatik  
20:30etara. Jai egunetan  
11:30etatik 14:00etara.

## IBILALDIAK

## ANDOAIN

*Maiatzak 18:* Andoaingo Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Elgeamendi, Mugarriluze, Aumategi eta Gaboño mendietara irteera.

*Maiatzak 25:* Andoaingo Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Armañon eta Ranero mendietara irteera.

## BILLABONA

*Maiatzak 24-25:* Aizkardi mendizale elkarteak antolatuta Bernera eta Castilla de Acher mendietara irteera.

## MUSIKA

## ANDOAIN

*Maiatzak 17:* Benito Lertxundiren musika emanaldia. Allurralde kiroldegian, gaueko 22:30etan. Sarrerak 1.000 pta. bertan, eta aldez aurretik berriz, 800 pta.

*Maiatzak 18:* Iratxo taldearen dantzaldia. Goikoplazan, arratsaldeko 18:30etatik 21:30etara.

*Maiatzak 30:* Usandizaga laukotzaren kontzertua. Olagain etxean, arratsaldez.

## BESTE

## ANDOAIN

*Ekainak 10:* Andoaingo odol emailcen elkarteak antolatuta, odola atearako dute Andoaingo anbulategian arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara.

## BILLABONA

*Maiatzak 23:* Ipuinaren ordua 6-9 urte birtarteko haurrentzat. Billabonako liburutegian arratsaldeko 18:30etan. Ipuin kontalaria Pello Añorga izango da.

## ASTEASU

*Maiatzak 16:* Herriko jaiei buruzko bilera. Kultur Etxean, 20:30etan.

*Maiatzak 22:* Argazki ikastaroa antolatzeko bilera. Arratsaldeko 20:00etan Kultur Etxean.

## MERKATU TXIKIA

ORDENAGAILUA SALGAI. Macintosh Classic ordenagailua eta inpresora salgai. Deitu 36 03 89 zenbakira.

MOBIL-HOME SALGAI. Mobil-home bat saltzen dut bere terraza eta guzti. Errioxako Haro herrian dago. Tfnoa: (943) 7913969 (arratsaldez).

## RIKARDO ARREGI HEMEROTEKA

Euskarazko aldizkari zaharrak biltzen ditugu heme-rotekako fondoa osatzeko: Anaitasuna, Zeruko Argia, Argia, Goiz Argi, etab. Informazio gehiago Larramendi Bazkunean (Elixabete Jauregi edo Xabier Lasa), 300733 telefonora deiturik.

## OHARRA

Zure iritzia Aiurrin argitaratu nahi baduzu, idatz ezazu 15-20 lerroko gutuna eta bidal ezazu gure egoitzara. Hori bai, beharrezkoa da zure izen-abizenak, telefonoa eta N.A. zenbakia jartzea.

AIURRI aldizkaria

Dr. Huizi kalea 15-1 esk.

20.140 Andoain

## KOMIKIA



# fotocolor

ERREBELATUA ORDU EAN

ZURE  
ARGAZKI  
DENDA!



JOSE IGNACIO UNANUE  
JUAN BTA. ERRO 1  
20.140 ANDOAIN  
☎ 59 43 32

**Kodak**  
**EXPRESS**  
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

KALITATEA ETA  
SEGURTASUNA ZURE  
ZERBITZURA

# URPA

AUTOBUSAK

☎ (908) 77 56 48 (24 orduak)  
☎ 59 38 05 (Garajea)



Sorabilla auzunea, 53. Pol.  
ANDOAIN (Gipuzkoa)

## KONFIDANTZA.




Egunetik egunera, hobetzen ari gara.



KIDEGASEKO BEZEROEN  
ARRETARAKO ZERBITZUA

900 121 775

GASA INSTALATZEAZ  
GAIN AHOLKU ETA  
GOMENDIOAK ERE  
EMATEN DIZKIZUGU



SUTAN JARRITAKO ONTZIEKIN  
KONTU IZAN, EDUKIA ISURI  
DAITEKE. GARRA ITZALI ETA  
GASA IRTETEN JARRAITUKO  
DU.



**Kidegas**, S.L.  
GASA ETA BEROGINTZA  
ZURE GAS AHOLKULARIAK

# EZ DUZU OSASUNIK IRABAZIKO



## BAINA BAI INFORMAZIO HOBEXEAGOA

Eman ezazu izena AIURRI-n, eta **UZTAILETIK AURRERA** hamabostean behin jasoko duzu etxean zure herriko berri dakarkizun aldizkaria. Hilero 200 pta. baino ez du bali, bi pintxo, kaina batek, edo bi kafek adina.

### HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak: .....

**URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.**

Helbidea: .....

Kontu korrontearen zenbakia:

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Kodea: ..... Herria: .....

Entitatea    Sukurtsala    K.D.    Kontu zenbakia

Lanbidea: ..... Jaiotze data: .....

Tokia, data eta izenpea:

Etxeko<sup>☎</sup> : ..... Laneko<sup>☎</sup> : .....

Nora eraman txartel hau: **Andoainen, Billabonan eta Asteasun:** Gipuzkoa-Donostia Kutzara edo Euskadiko Kutzara. **Gainera, Andoainen:** Aiurrira bertara edo Delgado, Ernaitza, Ikas-Jolas, Minikost, eta Stop liburudendetara. **Billabonan,** Kultur etxe edo euskaltegietara eta Basajaun liburudendara. **Zizurkilen,** Iriarte kultur etxera eta Arregi plazako kultur etxera. **Asteasun,** Kultur etxera. **Adunan,** ostatura. **Larraulen,** herri-ostatura.